



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko ekainaren 9a

62. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

- 11-26/PRO-00011. Foru-lege proposamena, Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legea aldatzea xede duena. Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (3. or.).
- 11-26/PRO-00005. Foru-lege proposamena, Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubideari buruzkoa. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (5. or.).
- 11-26/PRO-00008. Foru-lege proposamena, zeinak xede baitu aldatzea 26/2016 Foru Legea, abenduaren 28koa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-26/MOC-00100. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira Pedro Sánchezen gobernua, alderdia eta ingurune pertsonala ukitzen duten ustelkeria-eskandalu larri eta jarraituak gaitzets ditzaten, gure nazioa aurrekaririk gabeko narriatze-espinal batean murgilarazten ari baitira. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (6. or.).
- 11-26/MOC-00101. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren autogobernuarekiko duen konpromisoa berresten baitu, bere eskubide historikoen eta berezitasun instituzionalaren adierazpena izateaz gain, funtsezko tresna baita Foru Komunitatearen aurrerabide ekonomiko, sozial eta demokratikorako. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztu du (7. or.).
- 11-26/MOC-00103. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu zuzenbide estatua eta epaile, fiskal eta segurtasun indar eta kidegoen lana babesten dituela eta arbuiatzen baitu erakunde judizialak eta polizialak beldurrarazteko, horiei xantaia egiteko edo sinesgarritasuna kentzeko ahalegin oro. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (9. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-24/PECP-00004. Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko hiru transkribatzaile-lanpostu betetzekoa, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Haietako batek euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna du. Beste transkribatzaile-lanpostu jabegabe bat sartzea (11. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-26/PRO-00011. Foru-lege proposamena, Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legea aldatzea xede duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege proposamena aurkeztu dute, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru-lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legea aldatzea xede duena

HITZAURREA

Nafarroako Parlamentuak 2005ean onetsi zuen politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko Foru Legea.

Foru-lege horren bidez, Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Foru Batzordea arautzen da, zeina sortu baitzen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kide anitzeko organo gisa, Nafarroako administrazio publikoen politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeaz arduratu dadin Nafarroako lurraldean. Organo hori, araua egin zen garaiko dinamikari jarraituz, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuari atxiki zitzaion.

Atxikipen horrek zentzua galdu du, bi arrazoierengatik:

Batetik, politika publikoen eta zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioa zeharkakotasunezkoa delako, eta esparru sektorial guztiei eragiten dielako; hori horrela, unitate guztien inplikazioa behar da ebaluazio horretan. Beraz, zentzua galdu du Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren zerbitzu bati atxikita egoteak, zeinaren xedea baita Nafarroako administrazio publikoen mendeko langileei prestakuntza ematea; lege-betebeharrengatik ezinbestekoa ez bada behintzat.

Bigarrenik, funtsezkoa delako administrazioek beren burua antolatzeke ahalmena izatea ahalik eta modurik onenean eman ahal izateko beren zerbitzuak eta gauzatu ahal izateko politika publikoak unean uneko egoeren arabera.

Ildo horretan, kontuan izan behar da 10/2023 Foru Dekretuak (Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariaren 10/2023 Foru Dekretua, abuztuaren 17koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen egitura ezartzen duena) 2. artikuluan xedatzen duela Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuak beteko dituela politika publikoak planifikatu, koordinatu eta ebaluatzeari dagokionez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak dituen eskumenak.

Era berean, Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 238/2023 Foru Dekretuan xedatzen da, alde batetik, 1.3 b) artikuluan, Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariari esleitzen zaiola Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Foru Batzordearen lehendakaritza; eta, beste batetik, Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusiari ematen zaizkio politika publikoen plangintza, koordinazio eta ebaluazioari dagozkion eskumenak.

Bestalde, lehen esandako arrazoiengatik, beharrezkoa da Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Foru Batzordearen osara eguneratzea, kasu batzuetan desagertu egin direlako hura osatzen duten kideekin lotuta aipatzen diren unitateak edo erakundeak, edo zaharkituta gelditu direlako. Arrazoi horiek berek justifikatzen dute Batzordearen idazkaritza ere aldatzea.

Hori horrela, proposatzen dugu aldatzea Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legearen 23. artikuluen 3. eta 4. apartatuak.

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legea.

Aldatu egiten da Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legearen 23. artikuluen 3. eta 4. apartatuen testua.

“3. Honela osatuko da Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Foru Batzordea:

a) Batzordeburua: Nafarroako Gobernuak erabaki bidez izendatuko du.

b) Kideak:

– Politika publikoen plangintza, koordinazio eta ebaluazioari dagozkion eskumenak dituen departamentuaren ordezkari bat.

– Aurrekontuen arloko eskumenak dituen departamentuaren ordezkari bat.

– Toki-administrazioaren alorreko eskumenak dituen departamentuaren ordezkari bat.

– Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren edo berdintasunaren alorreko eskumenak dituen erakundearen ordezkari bat.

– Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren hiru ordezkari.

– Nafarroan kudeaketa-bikaintasunaren edo -kalitatearen alorrean erreferente den entitate edo fundazioaren ordezkari bat. Halako entitate edo fundazio batek baino gehiagok nahi badute Batzordean parte hartu, Nafarroan duten garrantzia eta lurralde-erazpena hartuko dira kontuan hautaketa egitean.

– Foru Komunitatean langile-ordezkarien, enpresa-batzordeetako kideen eta administrazio publikoetako dagozkien organoetako kideen 100eko 10 edo gehiago ordezkatzeko dituen erakunde sindikal bakoitzaren ordezkari bat, aipatutako adierazpen-esparru horien arteko guztizkoan kontuan hartuta ehuneko hori.

c) Idazkaria: funtzionario edo langile publiko bat, politika publikoen plangintza, koordinazio eta ebaluazioari dagozkion eskumenak dituen departamentuak izendatua.

Foru-dekretu bidez zabaldu ahalko da Batzordearen osara, politika publikoen eta zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioari zuzenean loturiko beste unitate edo entitate batzuk sartzeko.

Orobat, adituak edo entitateetako ordezkariak edo pertsonak gonbidatu ahalko ditu Batzordeak, landu beharreko gaia edo arloa zein den ikusita.

Politika publikoen plangintza, koordinazio eta ebaluazioari dagozkion eskumenak dituen departamentuaren titular den pertsonak eginen du Batzordeko kideen eta idazkariaren izendapena.

4. Bere xedeak bete daitezten, politika publikoen plangintza eta ebaluazioari dagozkion eskumenak dituen departamentuak eskuratzen dizkion bitarteko materialak eta giza baliabideak izanen ditu Batzordeak, hari atxikita egonen baita”.

Xedapen gehigarri bakarra. Arau-erreferentziak.

Politika publikoen ebaluazioa garatzen duten arau eta planetan Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuari egiten zaizkion aipamenak politika publikoen plangintza, koordinazio eta ebaluazioari dagozkion eskumenak dituen departamentuari eginak direla ulertuko da.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira foru-lege honetan ezarritakoarekin kontraesanean dauden maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

11-26/PRO-00005. Foru-lege proposamena, Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubideari buruzkoa

OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko ekainaren 4an egindako bilkuran, ez du aintzat hartu Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubideari buruzko foru-lege proposamena, zeina Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu baitzuen eta 2026ko apirilaren 30eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2026ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/PRO-00008. Foru-lege proposamena, zeinak xede baitu aldatzea 26/2016 Foru Legea, abenduaren 28koa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko ekainaren 4an egindako bilkuran, ezetsi egin du foru-lege proposamena, zeinak xede baitu aldatzea 26/2016 Foru Legea, abenduaren 28koa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hori argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2026ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-26/MOC-00100. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira Pedro Sánchezen gobernu, alderdia eta ingurune pertsonala ukitzen duten ustelkeria-eskandalu larri eta jarraituak gaitzets ditzaten, gure nazioa aurrekaririk gabeko narriatze-espinal batean murgilarazten ari baitira

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira Pedro Sánchezen gobernu, alderdia eta ingurune pertsonala ukitzen duten ustelkeria-eskandalu larri eta jarraituak gaitzets ditzaten, gure nazioa aurrekaririk gabeko narriatze-espinal batean murgilarazten ari baitira.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Talde Mistoko foru parlamentari eta VOXeko kide Emilio Jiménez Román jaunak honako mozio hau aurkezten du, 2026ko ekainaren 11ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta, kasua bada, onesteko:

Zioen azalpena

2018az geroztik Pedro Sánchez buru duen Gobernuaren inbestidura eta ondorengo kudeatzea zatiketa parlamentario handiko testuinguru batean gertatu da, eta ezaugarri izan du hainbat alderdi politikorekin akordioak egin behar izatea gobernuaren egonkortasuna bermatzeko. Egoera

horrek eztabaida publiko bizia eragin du erabaki politiko jakin batzuen irismenari buruz eta erabaki horiek Estatuaren esparru instituzionalean duten eraginari buruz.

Neurri eztabaidagarrienen artean daude Kataluniako lider independentistek emandako indultuak eta 2017ko urriaren 1eko gertakariari lotutako amnistia-legearen onespina. Iritzi publikoaren eta klase politikoaren sektore zabalek jardun horiek babes parlamentarioa lortzeko eta mantentzeko mekanismo gisa interpretatu dituzte, eta horrek kezka sortu du, legearen aurreko berdintasuna eta botere-banaketa bezalako printzipioei eragin diezaiekeelako.

Era berean, ezarritako migrazio politikek, zeinek ezaugarri izan baitute irekitasun handiagoz jokatzea fluxu-kudeaketaren eta ehunka mila pertsonari eragin dieten ezohiko erregularizazio-prozesuen aurrean, kritikak jaso dituzte hainbat eremutatik. Adierazi da eragin negatiboa izan dezaketela oinarritzko zerbitzu publikoen jasangarritasunean, auzo batzuen kohesioan eta eremu jakin batzuetako kriminalitate-indizeetan, eta epe ertainean, neurri batean, hauteskunde-laguntza lortzeko estrategiei erantzun diezaieketelako hipotesia ere badago.

Askok eta askok zalantzan jarri dute, halaber, Gobernuaren jarduna krisien eta segurtasun-mehatxuen kudeaketari dagokionez. Muturreko gertaera klimatikoari –adibidez, 2024ko urrian Valentziako Erkidegoan izandako uholdeei– emandako erantzunak, 2025eko apirilko itzalaldi elektriko orokortuak, Guardia Zibileko kideen aurkako erasoak La Línea de la Concepción eta Huelvan, eta 2026ko urtarrian Adamuzen eta Bartzelonan gertatutako tren istripu larriak, hildako kopuru handiarekin, agerian utzi dituzte herritarren segurtasunerako kritiko-

ak diren arloetan planifikazioak, koordinazioak eta baliabide-lehenespenak izandako gabeziak.

Elementu horiez gain, Gobernuako presidentearen familia-inguruneke pertsonai, zuzeneko laguntzaileei eta haren alderdiko kide nabarmenei eragiten dieten hainbat prozedura judizial daude zabalik. Modu berezian, José Luis Rodríguez Zapatero Gobernuako presidente ohiaren inpartzioak aurrekari garrantzitsu bat gehitzen du jarduera politikoaren fiskalizazio judizialaren egungo panoraman. Kasu horiek indartu egin dute botere-maila altuen balizko eredugarritasun-faltaren pertzepzioa, eta herritarrek erakundeengan duten konfiantza higatzen lagundu dute.

Instituzioak polarizatzen eta zalantzan jartzen diren agertoki horretan, indarrean dagoen konstituzio-ordena zalantzan jartzen duten indar politikoeiko aliantzei eusteak erabat baldintzatzen du egungo Gobernuaren iraupena. Espainiako herritarrek esku-bidea dute zerbitzu publikoen funtzionamendu ego-kia bermatuko duen administrazioa izateko, segurtasunik ezaren aurrean erabakitasunez jardunen duena, etxebizitza-eskuratzea sustatuko duena eta Nazioaren subiranotasuna eta lurralde-osotasuna zalantzarik gabe defendatuko dituen.

Horregatik, eztabaida politiko, judizial eta kudeaketakoen metaketaren aurrean, bidezkoa da hauteskunde orokorretarako deialdia egiteko eskatzea, herri-subiranotasunak bere egungo nahia adierazi ahal izateko eta zilegitasun demokratiko berritua izanen duen gobernu bat eratzeko, konprometitua gardentasunarekin, kudeaketa publikoaren eraginkortasunarekin eta Espainiaren interes orokorraren lehentasunezko defentsarekin.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu Pedro Sánchezen gobernua, alderdia eta ingurune personala ukitzen duten ustelkeria-eskandalu larri eta jarraituak gaitzets ditzaten, gure nazioa aurrekaririk gabeko narriatze-espinal batean murgilarazten ari baitira.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu adieraz dezaten beharrezkoa dela hauteskunde orokorretarako berehalako deialdia egitea, Pedro Sánchezen kudeaketak gidari izan dituen ustelkeria politiko, moral eta ekonomikoaren aurrean, espainiarrei hautetsontzietan ahotsa emateko.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Foru-parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-26/MOC-00101. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren autogobernuarekiko duen konpromisoa berresten baitu, bere eskubide historikoen eta berezitasun instituzionalaren adierazpena izateaz gain, funtsezko tresna baita Foru Komunitatearen aurrerabide ekonomiko, sozial eta demokratikorako

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren autogobernuarekiko duen konpromisoa berresten baitu, bere eskubide historikoen eta berezitasun instituzionalaren adierazpena izateaz gain, fun-

tsezko tresna baita Foru Komunitatearen aurrerabide ekonomiko, sozial eta demokratikorako.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru-parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Jarraipena Lehendakaritza eta Berdintasuneko Departamentuak eginen du.

Zioen azalpena

Nafarroaren autogobernua Nafarroaren eta bertako herritarren ongizatearen, gizarte-kohezioaren eta garapen ekonomikoaren funtsezko zutabeetako bat da.

Foru-araubidea, Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aitortua, Nafarroako eskubide historikoen eta Nafarroako herritarrek beren orainari eta etorkizunari zuzenean eragiten dieten politika publikoak erabakitzeko eta kudeatzeko duten gaitasunaren adierazpen gorena da.

Azken hamarkadetan, Nafarroako gobernuek autogobernuari eman dioten garapenari esker, hobetu egin da zerbitzu publikoen ematea, eta, zalantzarik gabe, indartu egin da gizarte moderno baten berezko bilakaeran Nafarroako gizarteak izan dituen gizarte-, ekonomia- eta lurralde-erronkei erantzuteko Nafarroako instituzioek duten gaitasuna.

Eskumen berrien (hala nola espetxe-osasungintzaren edo bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren kudeaketarenaren) transferentziaren bidez azken urteetan emandako aurrerapausoek erakutsi dute Nafarroatik egiten den kudeaketa eraginkorragoa eta hurbilagoa dela eta Foru Komunitatearen errealitate-ra gehiago egokitzen dela, eta espero dugu laster eskumen horiei gehitzea trafikoaren eta bide-segurtasunaren eskumena erabat eta eskusiboki baliatuzkoa, Nafarroako herritarrei mesede egiten dieten politika eraginkorren erakusle gisa.

Hala ere, autogobernua garatzeko prozesua ez dago amaituta. Badira Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak aitortzen dituen baina Nafarroak oraindik ere benetan bere gain hartu ez dituen eskumenak.

Une honetan, Nafarroako Gobernua eta Estatu-ko Gobernua negoziatzen ari dira, eta beken, I+G+Bren eta laneko eta gizarte-segurantzako ikuskaritzaren eskumenen transferentzia adosteko eta burutzeko zain daude. Negoziazio horiek, Geroa Bairen ustez, ez doaz, inondik ere, gure autogober-

nua eraginkorra izateko desiragarria eta egokia litzatekeen erritmora. Eskumen horiek gure gain hartzea ezinbestekoa da, indartzekoak bagara Nafarroaren garapen sozialerako, ekonomikorako eta ezagutzarako estrategikoak diren eremuetan dugun erabakitze-gaitasuna, hartara eredu propioak finkaturik, zeinek lehiakortasun ekonomikoa, trantsizio ekologiko eta digitala, lurralde-kohezioa eta Nafarroako herritarren aukera-berdintasuna indartzeko aukera ematen eta horretarako balio baitute.

Geroa Bain beti defendatu izan dugu, argi eta garbi, erabilgarri eta moderno den eta herritarren zerbitzura dagoen autogobernua, berezitasun foral propioaren errespetuan oinarritua.

Beraz, beharrezkoa da Nafarroaren eskumenen garapenean aurrera egiten jarraitzea, egiteke dauden eskualdaketak burutu daitezzen bultzatuz eta bermatuz Foru Komunitateak bere eskumenak erabat erabili ahal izanen dituela Nafarroako herritarren beharrei erantzuteko, hurbiltasunetik, eraginkortasunetik eta erantzukizun instituzionaletik; gainera, Nafarroaren eta Estatuaren arteko harremanetarako alde biko mekanismoen funtzionamendu arin eta eraginkorraren bidez egin behar da, justifikaziorik gabeko atzerapenak saihesturik eta hartutako konpromisoak betetzen direla bermaturik.

Horregatik guztiagatik, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren autogobernuarekiko duen konpromisoa berresten du, erkidegoaren eskubide historikoen eta berezitasun instituzionalaren adierazpena izateaz gain funtsezko tresna ere badenez gero Foru Komunitatearen aurrerabide ekonomiko, sozial eta demokratikorako.

2. Nafarroako Parlamentuak lehentasunezkoztat jotzen du Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aurreikusitako eskumenesparrua garatzen jarraitzea, oraindik egiteke dauden transferentzia-prozesuak amaituz, bai aribidean daudenak, bai hasigabeak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskualdatu gabe dauden eskumenen negoziazioa eta burutzapena bultzatzen jarraitzera.

4. Nafarroako Parlamentuak Estatu-ko Gobernua premiatzen du leialtasun instituzionalez jardutera eta Nafarroaren autogobernuaren garapen eraginkorra burutzeko beharrezkoak diren akordioak erraztera.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio txosten eguneratu bat egiteko eta Parlamentuan aurkezteko sei hilabeteko epean. Txosten horrek honako hauek jasoko ditu:

- Eskualdatu gabe dauden eskumenen egoera.
- Estatuko Administrazio Orokorrekin abian diren negoziazioak.

- Hautemandako oztopo nagusiak.
- Oraindik burutu gabeko eskualdatzeetan aurrera egiteko egutegi-proposamena.

Iruñean, 2026ko ekainaren 4an

Foru-parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

11-26/MOC-00103. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu zuzenbide estatua eta epaile, fiskal eta segurtasun indar eta kidegoen lana babesten dituela eta arbuiatzen baitu erakunde judizialak eta polizialak beldurrarazteko, horiei xantaia egiteko edo sinesgarritasuna kentzeko ahalegin oro

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu zuzenbide estatua eta epaile, fiskal eta segurtasun indar eta kidegoen lana babesten dituela eta arbuiatzen baitu erakunde judizialak eta polizialak beldurrarazteko, horiei xantaia egiteko edo sinesgarritasuna kentzeko ahalegin oro.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu Zuzenbide Estatua eta epaile, fiskal eta segurtasun indar eta kidegoen lana babesten dituela eta arbuiatzen baitu erakunde judizialak eta polizialak beldurrarazteko, horiei xantaia egiteko edo sinesgarritasuna kentzeko ahalegin oro.

Zioen azalpena

Zuzenbide Estatua errespetatzea demokrazia aurreratu ororen funtsezko zutabeetako bat da. Epaileen independentzia, Fiskaltzaren autonomia eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen lan profesionala ezinbestekoak dira legearen aurreko berdintasuna, ustelkeriaren jazarpena eta interes orokorraren defentsa bermatzeko.

Azken asteetan, Espainia kezkatuta dago gora egin dutelako ustezko ustelkeria-kasuei lotutako garrantzi publiko handiko ikerketa judizialean parte hartzen duten epaileen, magistratuen, fiskalen eta Guardia Zibileko kideen aurkako deklarazioek, erasoek eta sinesgarritasuna kentzeko kanpainen.

Bereziki larria da, Alderdi Sozialistaren ingurune politikoari eragiten dioten ikerketa judizialen aurrean, eremu jakin batzuetatik presio politikoko estrategia bat eta ustezko xantaiak sustatzen aritea, epaileen eta polizia-kidegoen zilegitasuna zalantzan jartzea, baita funtsezko funtzio konstituzionalak betetzen dituztenak publikoki seinalatzea ere.

“Leyre kasua” delakoari buruz berriki ezagututako informazioek, bai eta Guardia Zibileko kideei edo ikerketa sentikorrek lotutako arduradun judizialei buruzko ustezko presio-saiakerei, larderiari edo informazio konprometigarriaren bilaketari buruzko berriek ere, kezka instituzional eta demokratiko handia sortzen dute. Demokrazia sendo batean ezin da normalizatu balizko irregulartasunak ikertzeko erantzukizuna duten haiek beldurtzeko, baldintzatzeko edo haiei sinesgarritasuna kentzeko saiakera gisa interpreta daitekeen inolako jokabiderik.

Bereziki kezkgarria da politikoki PSOeri edo Santos Cerdánen inguruneari lotutako pertsonak agertzea kazetaritza-informazioetan, UCOn txostenetan eta sumario judizialean, ikertzaile polizialei edo judizialei sinesgarritasuna kentzeko edo presioa egiteko jarduketengatik. Alderdi Sozialistaren isiltasunak, informazio horien aurrean Estatuko instituzioei ez dienean sinesgarritasuna kentzen, konfiantza instituzionala indartzen lagundu beharrean, zigorgabetasuneko eta narriadura demokratikoko sententzia elikatzen du.

Kritika politikoa bidezkoa da. Desadostasun juridikoa ere bai. Zuzenbide Estatu batean onartezina da epaile, fiskal edo polizia-agenteak beldurtzea, seinalatzea edo haien sinesgarritasuna nahita higitzea, haien ikerketek arduradun politikoei eragiten dietenean.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du:

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak berresten du Zuzenbide Estatuarekiko, botere-banaketarekiko eta epaileen independentziarekiko bere konpromiso argia, gure demokraziaren funtsezko printzipio diren heinean.

2. Nafarroako Parlamentuak babes eta aitoren instituzionala ematen die epaileei, magistratuei, fiskalei, Guardia Zibilari, Polizia Nazionalari, Foruzaingoari eta gainerako segurtasun-indar eta -kidegoei, ikerketa judizialak eta polizialak profesionaltasunez eta independentziaz egiten baitituzte, bereziki ustelkeriaren arloan.

3. Gaitzesten du epaileen, fiskalen edo polizia-agenteen aurka egiten den edozein presio-ahalegin, seinalatze, xantaia, larderia edo sinesgarritasun-kentze, beren konstituzio- eta lege-funtzioak gauzatze hutsagatik egin ere.

4. Parlamentuak kezka agertzen du garrantzi publikoko ikerketekin zerikusia duten Guardia Zibileko edo eremu judizialeko kideak gutxiestera edo beldurtzera bideratutako jardueri buruz argitaratutako informazioengatik, eta gertakariak ahalik eta gehien argitzeko eskatzen du.

5. Alderdi politiko guztiak eta, bereziki, gobernu-erantzukizunak dituztenak premiatzen ditu errespetu instituzional osoz jokatzera eabazpen judizialen, ikerketa-prozeduren eta Segurtasun Indar eta Kidegoen lanaren aurrean, herritarrek Estatuko instituzioengan duten konfiantza higa dezaketen adierazpenak edo jokabideak saihestuz.

6. Espainiako Gobernuari eta Alderdi Sozialistari eskatzen die argi eta anbiguotasunik gabe gaitzets dezaten epaileak, fiskalak edo polizia-agenteak beldurtzea, haiei sinesgarritasuna kentzea edo haien lana baldintzatzeta bilatzen duen edozein jardura.

7. Mozio hau igorriko die Espainiako Gobernuari, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, elkarte judizialei, Guardia Zibilaren, Polizia Nazionalaren eta Foruzaingoaren elkarte profesionalei eta Diputatuen Kongresuari.

Iruñean, 2026ko ekainaren 4an

Eleduna: José Javier Esparza Abaurrea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/PECP-00004. Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko hiru transkribatzaile-lanpostu betetzeko, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Haietako batek euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna du.

Beste transkribatzaile-lanpostu jabegabe bat sartzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zerbitzu Orokorretako buruak eta Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko buruak txostena aurkeztu dute Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko beste transkribatzaile-lanpostu jabegabe bat (C mailakoa) sartzeari buruz Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko hiru transkribatzaile-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian. Haietako batek euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna du. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2025eko otsailaren 17ko erabaki bitartez onetsitako deialdia da (45. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2025eko martxoaren 6koa).

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduen 42. artikuluen 1.2 oinarrian ezarritakoaren arabera, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Baimena ematea Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuari atxikitako beste transkribatzaile-lanpostu jabegabe bat (C mailakoa) sartzeko Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko hiru transkribatzaile-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak (haietako batek euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna du), oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2025eko otsailaren 17ko erabaki bitartez onetsitako deialdia da (45. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2025eko martxoaren 6koa). Aipatu postuak ez du euskarazko hizkuntza-eskakizunik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
